

BALEIKE

267. ZENBAKIA. EURO BAT
2017ko UZTAILA-ABUZTUA

www.baleike.eus



EUSKALDUNAK HILTZEA **LEGEZKOA** ZENEKOA

XVII. mendean
Islandian izandako
euskal baleazaleen
sarraskiaren inguruko
liburua itzuli du Maia
Ossa Rissanenek
suomieratik euskarara.

UROLA BAILARAKO BIDEGORRIA OSATZEAR

Sartu gure webgunean
eta ikusi eskaintzarik onenak!



ENDAÑETA ZUMAIA

35 urte baino
gehiagoko
esperientzia

EZAGUTU ENDAÑETA

www.endañetazumaia.com

Zure erosketak
etxetik eroso
egiteko

Dendako prezio
eta zerbitzu
berdinak

24/48 orduan
etxean
muntatua eta
martxan jarria



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

5

baleike +

“BIDEGORRIA BAILARA OSOARENTZAT DA, EZ ARROARENTZAT BAKARRIK”

11

elkarrizketa

MAIA OSSA RISSANEN

16

irudia

ALFREDO BIKONDOA

19

erretiratu

ABUNDIO GARCIA

24

ondarea

MARTXELO LINAZASORO,
TXANPEROGILEA

30

agenda

UZTAILA-ABUZTUA

32

UDAKO ARGAZKI
LEHIAKETA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



“Bidegorria **bailara** **osoarentzat** da, ez Arroarentzat bakarrik”

TESTUA: GORKA ZABALETA

Brinkolatik Zumaiara, Aizkorriren magaletatik Itzurunera; 45 kilometro inguruko bidea bizikletaz egin ahal izateko Arroa Beheko tarte osatzea baino ez da falta. Azken hilabeteotan egin diren aurrerapenak kontatu eta mezu bat eman digute arroarrek: batu herri guztiak eskaerara, onura denontzat izango da eta.





DANBOJIN

Narrondotik Arroa Beheko bidegurutzera 500 metro eskas dau-de, baina arriskuz betetako errepide zatia da: bazterretan ez du tarterik, kotxe asko ibiltzen dira, espazio itxia eta ikuspegi moztzekoa da, eta bidegurutzea ere nahikoa gaiztoa. “Arroako haur asko joaten dira Zumaiara, kirola dela edo eskolaz kanpoko ekintzak direla; baina ezin ditugu bizikletaz edo oinez bidali, herriguneraino bizpahiru kilometro baino ez diren arren. Kotxez eraman behar izaten ditugu”.

Arroa Beheko auzo elkarteko kide dira Joxemari Manzisidor, Pili Perurena, Ainitze Egaña eta Joseba Ossa. Azken hilabe-teotan nahikoa lan izan dute auzoan eskola txikien jaia anto-latzen, baina atera dute denbora bidegorria lortzeko borrokan urrats garrantzitsuak egiteko. Aldundiarekin eta Batzar Na-gusiekin hartu-emanak izan dituzte, eta dagoeneko Arroako bidegurutzean biribilgunea egiteko lehen pausoak eman ditu Aldundiak. “Orain falta zaiguna da hurrengo aurrekontuetan konpromiso zehatzak hartzea, bai Narrondotik Arroarako bi-degorri zatia exekutatzeko, bai Arroatik Iraetarainoko zatiaren proiektua idazteko”.

Gogoratzen dutenez, hogei urte izango dira hitz egiten hasi zirela bide egokiagoen premiaz, “Tellenditik auzora”, adibidez; baina 2014tik aurrera hartu zuen benetan indarra bidegorriaren eskaerak. Izan ere, 2014ko uztailean inauguratu zen Zumaiatik Narrondorainoko bidegorri zatia, eta proiektuak aurreikusten zuen bigarren fasean lotuko zituztela Narrondo eta Arroa Be-hea. “Ikusi genuen gutxi falta zela bidegorria osatzeko, azken urratsa baino ez. Zumaiarekin lotzeko 500 metro falta zaizkigu; eta bailaran gora, Iraetarainoko hiru kilometroak prestatuz gero, Legazpiraino dago bidea”.

Bideak eta biribilgunea, bi eskaerak uztartu zituzten auzoki-deek 2014an, arazoa bere osotasunean konpontzeko biak hartu behar zirelako kontuan. 350 bat sinadura bildu zituzten (500 bat biztanle dauzka Arroa Beheak) bidegorria eta biribilgunea eskatuz, eta Aldundira bidali zituzten, orduko Zestoako alkateo-rdearen bitartez. “Orduan Bildu zegoen Aldundian, haiekin ere hitz egin genuen, eta jarrera nahiko ona agertu zuten bidegorria amaitu eta biribilgunea egiteko”.

Gipuzkoako bidegorri sarea

Gipuzkoako Foru Aldundiak diseinatura dauka lurralde osorako bidegorrien sarea. Bi bide nagusi pasatzen dira Arroa Behetik: kostaldekoa, Donostiatik Mutrikura doana; eta Urola baila-ra lotzen duena. Ibilbideen diseinuak egin ziren bere garaian; Narrondotik Arroa Behera falta diren 500 metroen proiektua 2013an idatzi zen, ibilbidea diseinatura dago eta aurrekontua zehaztuta ere bai: 710.000 euro inguru, bere garaian. Gainera, Aldundiaren planak dio du 2021a baino lehen egin beharreko zatia dela. “Zati hori egiteko dirua jartzea baino ez da falta. Bo-rondatearekin, berehala egin daiteke”, diote auzokideek.

Beste zatia, Arroa eta Iraeta artekoa, Urolako bide berdeari dagokio –bide berde deitzen zaie utzitako trenbideak erabiltzen direnean–. Legazpitik abiatzen da eta bakarrik falta da Arroa Behea Iraetaarekin lotzea, hiru kilometro inguru. “Lasaoko za-tian ere zerbait egin beharko litzateke; errepidea gurutzatu behar

da eta kotxeak azkarregi dabilta, 50 km/h-ko muga dagoen arren. Baina berez Arroako zatia baino ez da falta". Arroako auzokideen proposamena da trenbide zaharra erabiltzea. Auzoarekin lotzeko, estazioko aldapatik errepidera jaitsi eta han semaforoak eta zebrabidea jartzea, autobusentzako geltokiak dauden inguru horretan. "Semaforoa eta zebrabidea behar dira han, kotxeak abaila handian ibiltzen baitira. Horixe da aukerarik errazena eta merkeena gure iritziz".

Zati hau landu gabe dago, ez dago proiekturik, eta Aldundiko planaren lehen tasunetan ere atzerago dago berez. Baina, aurreko Aldundiak konpromisoa hartu omen zuen lanean hasteko. "200.000 euro inguru gorde zituzten Iraetako tunela konpontzeko. Erorita dago eta hura da arazorik handiena. Baina gobernu aldagetarekin konpromisoa bertan behera gelditu zen. Guk eskatzen duguna da Narrondotik Arroa Behera falta den zati hori exekuta dezatela lehenbailehen, eta bestea lantzen has daitezela, proiektua idatzi eta egin beharreko aurre lanak martxan jartzeko. Diru gutxiarekin egin daitezke bi zatiak eta bailara osoa lotzea lortuko litzateke".

Bidegorriaren onurak, bailara osoarentzat

Iazko udazkenetik indar handiagoz aritu dira lanean bidegorriak lortzeko. Urrian, Arroatik Zestoara martxa antolatu zuten gaia berriro mahai gainean jartzeko; azaroan, Zestoako Udalak bidegorriaren aldeko proposamena onartu zuen aho batez; eta abenduan, Zestoako alkatearen bitartez bailarako beste alkateei bidali zitzaizen gutuna babes eske. Baina auzotarrak ez ziren hori gelditu. Eskumenak Aldundiak dituen, haiengana ere iritsi nahi zuten. "Erabakiak hartzen dituztenekin bildu nahi genuen, gure eskaera lehen eskutik ezagutzea nahi genuen". Saiatu ziren mugikortasun diputatu Marisol Garmendiarekin (PSE) biltzen, baina batzar hartara Zestoako alkatea joan zen azkenean.

Ez zuten etsi, eta azkenean Gipuzkoako Batzar Nagusietako mugikortasun batzordera joateko gonbitea lortu zuten, Jon Albizu (EH Bildu) batzarkide zumaiaarrak egindako gestioari esker. Dozena bat lagun joan ziren, martxoaren 30ean. "Aurkezpen bat prestatu genien, bideo bat ere bai, ikus zezaten hemengo egoera zein den. Agerraldia oso ondo joan zen, alderdi guztiek onartu zuten eskaera logikoa dela eta ikusi zuten onura bailara osoarentzat dela. Gure mezua garbia izan zen: eskaera hau ez da soilik Arroaren mesederako, bailara osoarentzat baizik; azken finean, Aizkorriren magala hondartzarekin lotzeko aukera da eskatzen duguna. Argudio horrekin lortu genuen alderdi guztien oniritzia".

Bidegorriak auzoari mesede handia egingo lioke, hori ez dute ezkututzen. "Eguneroko bizitzan, alde handia izango litzateke. Gaur egun derrigor kotxea erabili beharra dago, Zumaia bertan egonda ere, errepide zati hori oso arriskutsua delako eta bazterrean tarterik ez dagoelako. Haurrak eta gazteak



GORKA ZABALETA

ARROAKO BIZILAGUNAK

Joxemari Manzidor, Pili Perurena, Ainitze Egaña eta Joseba Ossa

ezin dira beraien kabuz joan Zumaia, beti kotxez eraman behar izaten ditugu. Bidegorriarekin, salto batean leudeke, oinez edo bizikletaz, eta beraien kabuz joateko batere arriskurik ez". Baina azpimarratzen dute beste hainbat onura izango lituzkeela, bailara osoarentzat. "Turismoaren ikuspegitik, baliabide bat gehiago litzateke, kostaldea barrualdearekin lotzeko modu bat. Zumaia doazen turistak bizikletarekin Ekainberri edo Loiolara joateko aukera. Kanpotar asko ikusten dira Zumaian, autokarabarekin, atzean bizikletak dauzkaitela, baina Zumaia mugitzeko aukera eroso eta segururik ez dago. Zumaia ere Arroara, Iraetara, Zestoara errazago iristeko; barrualdetik hondartzara joateko; edota, lantokietara joateko, kirola egiteko... Hamaika aukera zabalduko lituzke".

Ezustean, biribilgunea

Beste borroka da biribilgunea. Bi eskaerak lotuta ikusi dituzte beti, baina Zestoako Udalak zailtasunak ikusten zituen bi eskaerak aldi berean bideratzeko. "Aholkatu ziguten bereizteko, departamentu ezberdinen ardura

direlako, bidegorria mugikortasun sailarena eta biribilgunea errepideena; teknikoki eta prozedura aldetik ere oso lanketa ezberdina eskatzen omen dute". Horrela, bidegorriari heldu zioten eta biribilgunea pixka bat alde batera utzi, konplexuago zelakoan.

Bada, otsailean, ezusteko ederra jaso zuten. "Jakini genuen Eusko Jaurlaritzak biribilgunearen proiektua landu duela bere kabuz, bidegurutze hori puntu beltzen artean duelako. Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak badu ekintza plan bat herri txikiak aztertzeko. Urtero udalerriri bat aukeratzen dute lurralde bakoitzeko, eta Gipuzkoan Zestoa aukeratu dute aurren; eta Zestoatik zer aukeratu eta, Arroako bidegurutzea eta bainuetxe errepide zatia". Baina hori bakarrik

ez... “Arazoa aztertzeaz gain, hiru proposamen landu dituzte, eta horien artean dago guk behin eta berriro eskatu izan dugun biribilgunea”. Biribilguneaz gain, autobusen geltokiak dauden pare horretan semaforoa eta zebrabidea aurreikusten ditu Jaurlearitzak.

Batzar Nagusietan egin zuten bilera hartarako argudio indartsua zen hura, eta ederki baliatu zuten. “Jakinarazi genien Jaurlearitzak ere begiz jota zeukala arazoa eta konponbidea ere landuta zeukala. ‘Gu ari gara hau eskatzen, baina jakin ezazue Jaurlearitza ere, bere kabuz, ondorio berberera iritsi dela’. Indar handia eman zigun argudio horrek”. Batzar hartan alderdi guztiak ados azaldu ziren eskaerarekin, eta arroarrek aukera baliatu zuten PSEko batzarkide Aitor Gonzalezekin harremana egiteko. “Planteatu genion bilera nahi

Bidegorria nondik?

Bidegorriaren ibilbidea proiektuan zehaztuta dago. 2013an diseinatu zuen Altair enpresak, Aldundiak eskatuta. Narrondotik abiatuta, butano biltegia pasa eta tren zubia baino lehen, errearen bestaldera pasatzea da asmoa, zubi txiki batetik. Maldan gora egiten du han, eta Bombas Azkue enpresaren atzealdetik iristen da bestalderaino, errepide ertzeraino. Berez, errazena litzateke errearen gainetik boladizo bat egitea, baina Uren Agentziak ez du onartzen. Azkueren atzetik diseinatutako hori da onartuta dagoena. Gero, soluzionatu beharrekoa da nola gurutzatu biribilgunea eta nola iritsi bestaldera. Txikierdin, adibidez, lur-azpitik pasatzen da.



BIDEGORRIA ETA BIRIBILGUNEA

Goian ikus daiteke bidegorriak zer ibilbide egingo duen Narrondotik Arroa Behera. Beheko irudian berriz, Jaurlearitzak biribilgunea egiteko proposatu duen aukeretako bat. Eta goian, ezkerrean, autobus geltokiaren parean proposatutako zebrabidea eta semaforoa.





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izoiztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel.: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t w i



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak

Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 862 152



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel.: 943 543 164
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroetzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA

Arkupe

Nagusia 2 - Tel. 943 861 001

ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti

ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943 543 406
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

Sari Isidro, 25 tel./fax: 943 148 306
20740 Arroa bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitorio Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Gorbea: 11-13 / Arrabaldoz: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan bota
Lantekidetasunak: 605 728 737 Eltxez eltxeko zerbitzua



BASUSTA

erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



UROLA KOSTAKO HITZA

genuela Marisol Garmendia mugikortasun diputatuarekin eta Iñaki Prego zuzendariarekin". Biler a bideratzekotan g elditu zen Gonzalez.

Aldundia Arroara bisitan

Batzar Nagusietan egon ondoren, maiatz amaieran izan zuten hurrengo hartu-ema na Aldundiko ordezkari ekin. "Donostiako San Telmo museoan antolatu zuten mugikortasunaren inguruko hitzaldi batera joatea erabaki genuen, Aldundiko arduradunak bertan topatu eta harremana mantentzeko aukera ona izan zitekeelakoan". Eta egun hartan, berriro espero gabeko albista biribilgunearen inguruan: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Arroa Beheko biribilgunearen proiektua idazteko lehiaketaren iragarkia. "Horrek esan nahi du datorren urtean edo hurrengoan biribilgunea egingo dela".

San Telmo museoko hitzaldi hartan, publiko artetik hitza eskatu eta Arroa Beheko kasuaren berri emateko aprobe txatu zuten auzokideek. "Hitzaldia amaitu zenean, guregana gerturatu zen Garmendiaren aholkularietako bat, gure berri bazutela esanez. Berriro eskatu genion biler a egin nahiko genukeela, gaiaz hitz egiteko. Proposat u ziguten biler a egin aurretik Arroara etorriko zirela, egoera bertatik bertara ezagutzeko".

Ekainaren 9an joan ziren Aitor Gonzalez batzarkidea eta aholkulari bat Arroara. Dena erakutsi zieten. "Segituan jabe tu ziren Narrondotik Arroarako errepide tarte hori zer arriksua den. Agotetik erakutsi genien trenbide zaharra, eta

Iraetan ere izan ginen". Biribilgunearen proiektua idazteko lehiaketa martxan zela gogorarazi zieten auzokideek Aldundiko ordezkari ei. "Erantzun zigutenez, ingeniariarekin hitz egin dute proiektua diseinatzerakoan bidegorriarentzat egin beharreko lotura eta pasabidea kontuan izan ditzaten, lanak aurreratzeko".

Horiek izan dira azken hilabeteotan izan dituzten hartu-ema nak eta egin diren aurrerapausoak. Biribilgunearen proiektua bideratuta dago eta badirudi aurrena hura egingo dutela. Bidegorriarentzat lotura eta pasabidea aurreikusten badituzte, lanak asko erraztuko dira aurrera begira. "Orain mugikortasun sailaren erantzunaren zain gaude. Dena den, guk badakigu uda ondoren hasiko direla datorren urteko aurrekontuak lantzen, eta hor lortu nahi ditugu konpromisoak. 2018ko edo beranduenez 2019ko aurrekontuek jaso dezatela Narrondotik Arroara-inoko zatia egiteko, eta Arroatik Iraetarinoko zatiaren proiektua idazteko behar den dirua".

Harremanetan hainbeste aurreratuta, aurrerantzean ere konpromiso zehatzak lortzeko lanean segituko dute auzotarrek. Eta lantegi horretan, ezinbesteko ikusten dute bailarako gainontzeko herrien bultzada: "Guk badugu lana bailara mailan jendea mugiarazteko. Iazko martxan izan ziren Zumaiako batzuk, baina batik bat Arroa Behekoen martxa izan zen, eta Zestoara iritsi ginenean ere bazirudien ez zela haien kontua. Ez dute orokortasunean ikusten. Bailarako jendea mentalizatu behar dugu. Bidegorria bailara osoarentzat da, ez Arroarentzat bakarrik". ■

Arroa Beheko biribilgunearen proiektua idazteko lehiaketaren iragarkia argitaratu du Foru Aldundiak

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantialtariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara

MÁSMÓV.L



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 63 97

Galdona



Mendiako muntzela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

Garbata

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057

Garaa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 81

Txomin Agirre, s/n

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK



Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Tapaia

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheha
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate Institute hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

Maia **OSSA RISSANEN**
ITZULTZAILEA

“Polita izan da nire **bi** **ama hizkuntzekin** lan egitea”

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

ELKARRIZKETA

Ama finlandiarra eta aita euskalduna ditu Maia Ossak. Finlandiera edo suomiera eta euskara ama hizkuntzak ditu, beraz, eta, horretaz gain, beste lau hizkuntza dakizki: ingelesa, frantsesa, gaztelania, grekera eta suediarra pixka bat. Itzulpengintza ikasketak egin zituen Gasteizen, eta egun euskara irakasle da Helsinkiko Unibertsitatean. *Ariasman*, *Euskal baleazaleen istorio bat* eleberria itzuli berri du finlandieratik.



Finlandian bizi den arren, Arroa Behean familian egun batzuk pasatzera etorrita harrapatu genuen Maia Ossa itzultzailea. Ekainaren 23an egin genion elkarrizketa, Helsinkira joan bezperan.

Zein da Ariasman?

Istorioko antagonista da. Benetako izena, historikoa, Ari Magnússon da, baina euskaldunak Islandiara joan zirenean ezizena jarri zioten, zaila egiten zitzaielako benetako izena ahoskatzea. Beraz, Ariasman ezizena da.

Benetako istorio bat da eleberriaren oinarria. Nola ezagutu zenuen kontakizuna?

2011n argitaratu zuen liburua filandieraz Tapio Koivukari idazleak, baina urte bat lehenago Euskal Herrira etorri zen liburua idazteko ideiak jasotzera. Hemen bizi diren finlandiarrekin jarri zen kontaktuan, eta nire gurasoei ere bai. Horrela ezagutu genuen istorioa. Kasualitatez, 2010ean, Erasmus programaren barruan, Grezian nengoen eta nik ez nuen ezagutu idazlea.

Istoria bategi ere egin zen ezagun 2015ean, euskaldunak hiltzea baimentzen zuen legea deuseztatu zenean.

Bai. 2015ean Islandian zeremonia hori egin arte istorio hori ez zen ezaguna. Liburuan kontatzen den gertakariaren 400. urteurrena ospatu zen 2015ean, eta sinbolikoki euskaldunak hiltzea baimentzen zuen legea deuseztatu zen.

Zein da istorioaren mamia?

1615ean kokatzen da, Islandian. Garai hartan, maiatza aldetik urria arte baleak harrapatzea joaten ziren euskal baleontziak. Ordurako baleak gutxitzen ari ziren, eta baleontzi batzuk etxera bueltan joan ziren. Batzuk, ordea, han gelditu ziren. Horiek denboraldi ona egin zuten; bale asko harrapatu zituzten eta upela guztiak beteak zituzten. Baina etxera bueltatzekotan zirela, irten behar zuten egunaren bezperan, izugarrizko ekaitza etorri zen, haizete handia etorri zen, baita izotza ere itsas aldetik. Barku guztiak txikituta gelditu ziren. Ondorioz, negu guztia han pasa behar izan zuten. 80 bat arrantzale gelditu ziren. Ez zuten etxerik, txabola txiki bat bilatzen bazuten hor gelditzen ziren lotan, gose bazuten ardi bat lapurtzen zuten eta jan egiten zuten... Islandiarrek, hala, mesfidati begiratzen zieten. Hori dela eta, 31 pertsona hil zituzten.

“Liburuan kontatzen den gertakariaren 400. urteurrena ospatu zen 2015ean Islandian”



Egoera hartan, gainerakoek, ingeles batzuen barkua abor-datuta, Euskal Herrira bueltatzea lortu zuten.

Zergatik hil zituzten?

Arazoi asko bila daitezke. Nire ustez, gakoa, eskualde hartako magistratuak saldu ziren lizentzia dago. Ari Magnússon zen magistratua, eta hark, baleak harrapatzeko lizentzia saldu ziren euskaldunei, baina ez zuen eskubiderik horretarako. Lizentzia emateagatik dirua hartu zuen. Zer pentsatu zuen?

Inor ez da enteratuko, eta, beraz, dirua eskatuko diet. Gero, ordea, enteratu zenean ez zirela Euskal Herrira bueltatu, eta han pasako zutela negu guztia, konturatu zen islandiarrak lizentzia horren berri jakingo zutela. Bide errazena, beraz, euskaldunak akabatzea izan zen. Bere trapixeoa ezkutatzeko egin zuen. Eta, hain zuzen, ordutik dago lege hori. Pentsatzen dut manuskrito batean edo idatziko zuela, eta lehen aipatu bezala, duela bi urte egin zuten zeremonia hartan deuseztatu zen lege hori.

Nola hil zituzten?

Bi txandatan, eta odol hotzean. Erremintekin, lantzekin, eskopeta batzuekin... Islandiarrak elkartu zituzten eta euskaldunengatik gauza gaiztoak esaten hasi ziren: lapurrak dira, gaiztoak..., “Ikusten badituzue, hil egin behar dira”. Euskaldun gehienak gipuzkoarrak ziren.

Benetako gertakari batean oinarrituta dago kontakizuna, baina ba al du zerbait fikziotik?

Euskara irakasle Helsinkiko Unibertsitatean

2013tik bizi da Finlandian, Helsinkin, hain zuzen ere. Itzulpengintza ikasketak egin zituen Gasteizen, eta behin amaituta, Finlandiara joateko erabakia hartu zuen. Hara iritsitakoan, lan bila hasi zen. Ikasketekin lotutako lanak aurkitzea oso zaila izan zuen. “Finlandieratik gaztelania-
ra interpretazio batzuk egin nituen, mediku kontsultetan, adibidez. Baina oso gutxitan, hilean behin, gehienez. Beraz, umeak zaintzen, fabrika batean, taberna batean... egin izan nuen lan”, kontatu du.

Horren ondoren ikasten hastea pentsatu zuen. Unibertsitatean ikastea doan da Finlandian, eta, gainera, diru laguntzak ematen dituzte ikasteagatik. Antropologia egin nahi zuen, baina sarbiderako proba ez zuen gainditu eta Frantses Filologia ikasten hasi zen. “Beste ikasketetako irakasgaiak hartzeko aukera duzu, eta, hori dela eta, Antropologiako batzuk hartu nituen”, esan du. Urtebete egin zuen ikasten, baina utzi egin zuen. Garai hartan euskara irakaslearen plaza atera zen, eta horretan hasi zen lanean. “Nire aurretik beste emakume bat egon zen, 10 urtez gutxi gorabehera. Finlandiarra da bera, baina Erasmusekin etorri zen Bilbora eta oso ondo ikasi zuen euskara”, adierazi du. Etxeparek egin zuen Helsinkiko irakurle plazarako deialdia eta Ossaz gain, beste bost pertsonak eman zuten izena. “Azkenean, finlandiera zekien bakarra ni nintzen, eta horrek lehentasuna eman zidan”, aitortu du.

2016ko urtariletik dabil irakasle.

Astean bi klase izaten ditu, bakoitzari bi ordukoa. “Bi maila bakarrik daude. Hasiberriak eta pixka bat aurreratuagoak daudenak. Ikasturte honetan 14 ikasle izan ditut eta polita da”, kontatu du. Ikasle dituen gehienak hizkuntzalaritza ikasten dutenak dira. Horieta askok japoniera, estoniera eta beste zenbait hizkuntza dakizkitez. “Batek samiera ikasten du, beste batek Alemaniako hizkuntza minoritario bat. Sentsibilizatuta daude hizkuntza minoritarioekin, baita hain bereziak direnekin ere. Gramatikaren aldetik ere euskara oso ezberdina da Europako beste hizkuntza guztiekin alderatuta, eta, orduan, interesa dute”, nabarmendu du.

Interesak, baina, ikasle batetik bestera dezente aldatzen direla kontatu du Ossak. “Batzuek euskal kulturarekiko dute interesa, beste batzuek Euskal Herrira oporretara joa-

“Sentsibilizatuta daude hizkuntza minoritarioekin, baita hain bereziak direnekin ere”



DANBOLIN

nez gero moldatzeko adina nahi dute ikasi, beste batzuek ergatiboak nola funtzionatzen duen jakin nahi dute. Azkenean, zaila da klaseak bateragarriak egitea”, esan du. Hiru urterako lanpostua du, eta beste urtebetez luzatzeko aukera ere bai. “Betiere unibertsitatea, Etxepare eta ni gustura bagaude”.

Gustura bizi da han, bizimodu ona dago, nahiz eta bere alde txarrak izan. “Ez dago Euskal Herrian bezalako bizitza sozialik, negua iluna eta hotza

da, jenderik ez dabil kalean, garestia da... Lagunak badituzte eta kuadrilla modukoa egin dut han, baina hori aurkitu arte zaila izan zen”, aitortu du. Ez du epe luzerako planik egiten, eta, beraz, ez daki etorkizunean Finlandian, Euskal Herrian edo beste lekuren batean izango den. “Momentuz Finlandian, lanarekin ere gustura nago”, amaitu du.

Gertaera garrantzitsu guztiak benetakoak dira. Idazlea iturri historikoetan oinarritu da liburua idazteko, nahiz eta gero pixka bat moldatu. Hori bai, pertsonaien arteko harremanak eta abar asmatu egin ditu, istorioari bizitasuna emateko.

Zerk bultzatu zintuen itzulpena egitera?

Egia esan, ez nuen bilatu, proposatu egin zidaten. Ez dago jende asko finlandieratik euskarara itzultzeko. Azkenean, nire gurasoak edo ni, eta niri proposatu zidaten. Bakarrik egiten dudan lehen aldia da. Aurretik Sofi Oksanen *Garbiketa* itzuli nuen gurasoekin Hori bai, gazteentzat zuzendutako nobela honen bertsio laburtua ere euskaratu nuen lehenago. Nafarroako Ikastolen Elkartek enkargatu zuen gazteentzako istorio hori laburtzeko. Koivukarrik berak eleberria laburtu zuen aurrena, eta nik hortik euskaratu nuen. Iaz hasi nintzen nobela mardularekin.

Nolakoa izan da itzultzeko prozesua?

Astuna izan da, egia esan, baina polita ere bai. Itzultzaileei normalean gustatzen zaie lehendabizi liburua guztia irakurtzea, baina nik ez dut hori egiten. Freskoan hastera gustatzen zait, eta zuzenean dokumentu originala hartu eta itzultzen hasi. Zailak idazleari galdetzen nizkion. Horretako ez da beti

aukera izaten, eta nik pribilegio hori izan dut. Idazlea oso eskura eduki dut.

2013tik Finlandian bizi zara; beraz, han egin duzu itzulpen lana.

Hori da. Iazko irailean hasi eta otsaila bitartean egin dut itzulpen lana, 6 hilabeteen, gutxi gorabehera. Ordu dezente izan dira, eta, hasieran, bakarrik, nire etxean itzultzen jartzea kostatu egin zitzaidan. Diziplina jartzea eta ordutegia mantentzea zaila egiten zait.

“Ez zait erraza egin itzultzea, gehienbat, terminologia eta gaiarengatik”

Zer moduzko esperientzia izan da zure ama hizkuntza diren bi hizkuntzekin lan egitea?

Berez, euskara da nire ama hizkuntza, askoz hobeto kontrolatzen dut finlandiera baino. Izan ere, Euskal Herrian jaio naiz eta hemen bizi izan naiz bizi-tza guztian. Finlandierarekin gertatzen zaidana da ez dudala guztiz kontrolatzen oraindik, eta batez ere, hizkuntza literarioa. Gainera, idazle honen estiloa nahiko arkaikoa da, ukitu zaharkitu antzeko zerbait erabiltzen du, eta eleberrian bere dialektoko hitz batzuk erabili ditu. Itzulpen lan honen beste zailtasuna terminologian aurkitu dut. Istorioa Islandian kokatzen da XVII. mendean eta terminologia guztia arrotza izan da ni-

Roberto Gutierrez


696 211 111

rgutierrez@rgutierrez.org

- Liburuak, katalogoak, aldizkariak, txostenak...
- Diseinu eta maketazio lanak
- Edizio lanetarako zerbitzu integrala: lanaren antolaketa, edukiak, argazkiak, itzulpenak, inprimategia, web...

Zure edizio lanetarako biderik onena.





EREN ARGITALETXXA

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Ariasman liburuaren idazlea, Tapio Koivukari, Mia Ossa Rissanenekin, Donostian egindako aurkezpen ekitaldian.

retzat: ontziaren zatiak, baleak harrapatzeko tresneria, Islandiako bizimodua, arkitektura eta ingurunea... Izan ere, liburuan agertzen diren kontzeptu asko guk ez ditugu ezagutzen, ez ditugu gure naturan aurkitzen, eta, noski, ez dugu horretarako hitz zehatzik. Finlandieraz hitza dute baina guk ez. Zalantza horiek guztiak idazleari galdetzen nizkion. Emailer izan dugu harremana, bera beste hiri batean bizi da eta.

Erraza egin zaizu itzultzea?

Erraza ez, baina ez hizkuntzagatik. Gehienbat terminologia eta gaiarengatik. Baina oso gustura egin dudana izan da, eta polita era berean nire bi ama hizkuntzekin lan egitea. Beste zerbait transmititzen dizu. Nire amaren hizkuntza da finlandiera; orduan, betidanik sentitu dut oso nirea bezala.

Liburuak arrakasta handia izan du Finlandian eta Islandian.

“Magistratuak baleak harrapatzeko lizentzia saldu zien euskaldunei, baina ez zuen eskubiderik horretarako”

egin zutela.

Batzuk txarrak eta besteak onak bezala gelditzen dira?

Ez dira gelditzen islandiarrak txarrak eta euskaldunak onak bezala. Izan ere, islandiarren artean daude txarrak, baina baita onak ere. Euskaldunen artean ere berdina gertatzen da. Botere harremanak lantzen dira hemen, eta magistratua txar bezala gelditzen da. ■

Islandian bai, Finlandian ez hainbeste. Idazlea bera ere ez da oso ezaguna. Islandian arrakasta izan du gai honi buruzko lehen nobela izan delako. Gainera, ikuspuntu neutro batetik dago landua. Bi alderdiak azaltzen dira hemen: islandiarrena eta euskaldunena. Xehetasun handiekin dago kontatuta eta bizitasuna ere badu istorioak. Entretenigarria da. Islandian lotsatuta daude. Orain arte ez da ezagutu istorioa eta lotsa ematen die pentsatzeak beraien arbasoek horrelako sarraskia



Zeru-lurren artean betikotasun une bat

1999an Donejakue Bidea egin zuen lehen aldiz Juan Ramon Llavori argazkilari zumaiarrak. Une hartan hasi zuen *Peregrinatio* izeneko proiektua. Ekimena erromes bideetan eta haien bizipenetan oinarritutako diziplina anitzeko erakusketa proiektua da.

Proiektu horren barruan, pasa den ekainean, Alfredo Bikondoa artista donostiarraren *Zeru-lurren artean betikotasun une bat* izeneko artelana zintzilikatu zuen San Telmo ermitan.

“Gurutzeari eman nahi nion garrantzia. Gurutzea marra horizontal eta bertikal batek osatzen du. Horizontala eboluzioa da, eta bertikala berriz iraultza. Gizakia, aldiz, erdian dago”, dio artistak.

Bisita gidatuak eskainiko dira hemendik aurrera. Orduetgia San Telmo ermitan adierazita egongo da.

*Ez dago zerurik non ilargia zintzilikatu
ez dago biderik non pausoa eman
arrosa gorriak elurretan besterik ez, denboratik kanpo*

Alfredo Bikondoa

Care-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran ingaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegia Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK



Angelos Soraru, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaxia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
jatetxea


Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basoñi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77


JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

K&BI Patxika Etazarreta, 15
943 143 427



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

DOIA



Julio Beobide, 2
943 574 986

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

Abundio **GARCIA**
JUDOKA

“Pentsatzeko eta gauzak egiteko moduak aldatu dizkit judoak”

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA ETA MARIA PILAR AZURMENDI

ERRETRATUA

Bizitza erdia baino gehiago eman dio judoari. Kirol hori praktikatu du, baita hainbat haurri irakatsi ere. Abundio Garciak laneko erretiroa hartu zuen urte hasieran eta horrekin batera klaseak emateari utzi zion. Pasa den ekainean, Alaiko jaietan omendu zuten egindako lanarengatik.



OMENALDIA ALAIKO FESTETAN

Ezusteko omenaldia jaso zuen Abundio Garciak ekainean Alaien izandako festetan.

“Erretiroa hartu dudanetik orduak falta zaizkit!”, dio Abundio Garciak umoretsu. Orain 61 urte jaio zen Avilan, Gredos mendikatean. Garai hartan, beste askok bezala, jaioterria utzi zuen bizimodu hobearen bila. “Anaia eta biok etorri ginen hona. Herritik bost lagun atera ginen. Hasieran, Bartzelonara joan ginen, han ezagun batzuk genituelako. Heldu ginen eta lagunetako batek esan zuen ezagun bat zuela Zumaian eta ea zergatik ez ginen hona etortzen”. Pentsatu eta egin. 1970eko hamarkadan etorri zen Zumaia eta ordutik hemen bizi izan da. Ayra Durexen (orain GKN) egin du lan 43 urte luzez eta urte hasiera honetan hartu du erretiroa. “Orain bizitzaz gozatzen ari naiz”, dio.

Betidanik kirolzalea izan dela aipatu digu. “Garai hartan ez zegoen gauza handirik Zumaian. Eskubaloia zegoen, futbola zertxobait eta halterofilia ere egiten zen. Baina, niri ez zitzaizkidan gustatzen. Bizikletan ibiltzen hasi nintzen, baita zikloturista moduan aritu ere, nekatu nintzen arte. Beste zerbait probatzeko gogoa nuen. Karate egitea gustatzen zitzaidan, baina halakorik ez zegoen hemen. Behin, Azpeitiko Olatz gimnasioko lagun bat etorri zen hona eta judoa ematen hasi zen. Hor hasi ginen elkarrekin”.

Pixkanaka joan zen kirol honetan sakontzen. “Irakasle baten bidez pauta batzuk ikasten joan nintzen eta oinarri bat lortzen. Pauta horiek jarraitu behar dituzu, bestela judoak ez du ezertarako balio. Diziiplina izan behar duzu, eta zure lagunaren laguna izan. Judoan denok berdinak gara, neska edo mutila izan, handiagoa edo txikiagoa izan”

goa izan. Hori da zure laguna errespetatzeko oinarria”.

Ikuspegi filosofiko horrek agian talka egin dezake pelikulen eta kirol ikuskizunen bitartez heldu zaigun irudiarekin. Borroka arteen irudi biolentoa izan dezakegu, baina ikuspegi hori okerra dela dio Abundiok,

judoari dagokionez, behintzat. “Agian karatea agresiboagoa da, kolpe gehiago jasotzen dituzulako. Judoan, ordea, ez dago kolperik: aurkaria lurrean immobilizatu behar duzu, edo tente bazaude, *ippon* [puntuazio modua borroka-arteetan] bat egin. Ez dago arriskurik, ez dago agresibitate; ez duzu inongo kolperik jasoko”.

Kolperik, agian, ez zuen jasoko, baina agresibitate hori aurkitu izan du lehiaketetan. Judoko lehiaketetan parte hartu izan duela dio, nahiz gustuko ez izan. “Agresibitate gehiago izaten zen, eta, noski, lehiatzerakoan irabaztera ateratzen zara. Nik itotze bat edo luxazio bat egiten dudanean badakit kontrolatzen. Baina lehiaketetan kontrol hori ez da izaten. Noski, beti dago epaile bat, baina... Ez, ez zaizkit inoiz lehiaketak gustatu”, onartu du.



Maite izan duena judoa txikiei, umeei irakastea izan da. 1990eko hamarkada hasieratik aurtengo urte hasierara arte judoko klaseak ematen Lubaki kiroldegian. “Garai hartan nahiko hutsik zegoen judo eskola eta Azpeitiko gimnasiokoekin hitz eginda, pentsatu genuen ezin zela bere horretan utzi eta nire esku utzi zuten ardura. Ordutik egon naiz klaseak ematen”. Horretarako, baina, lehenbizi gerriko beltza eskuratu behar izan zuen, kirol honek dagoen gorena. “Eskolak emateko beharrezkoa da gerriko beltza edukitzea. Judoan hasi eta 12-13 urtera lortu nuen. Zuriarekin hasten zara eta gero horia, laranja, berdea, urdina, marroia eta beltza daude. Orain hirugarren *dane*ko [maila azaltzeko erabiltzen den hitza] gerriko beltza dut. Laugarren *dana* lortzeko saioa egin nezake, baina ez. Belauna ez daukat ondo eta belaunek asko sufritzen dute judoan”.

5 urterekin hasten dira haurrak judoan. “Hasiberri bat berehala taldean sartzen dugu. Noski, adi egoten gara beti. Erorikoetan egon behar zara bereziki adi. Koltxoneta baten gainean egiten da lana eta minik ez dute hartuko, baina adi egon behar da eskuen posizioekin eta, bereziki, lepokoarekin. Judoaren oinarri bat erortzen jakitea da eta beldurrak uxatzea. Denok dugu erortzeko beldurra, baina saio batzuen ondoren,

“Judoaren oinarri bat erortzen jakitea da eta beldurrak uxatzea”

ikasi egiten da. Batzuk saltoka hasten dira. Esaten diegu hori pelikuletan dela eta hau bizitza erreala dela”.

Ustez kirol biolentoa izateagatik haurrentzako egokia ez dela dioten iritziak daude. Horien aurka dago Abundio. Are gehiago, ume hiperaktiboen kasuan pedagogoez judo egitea gomendatzen dutela dio. “Ume horiek etortzen direnean hasieran energia handia nabari zaie. Baina beste guztiei bezalako tratua eman behar zaie. Gauzak nola diren esaten zaie, eta ikusten duzu duten energia gastatzen joaten zaiela. Txikitatik erakusten zaie barruan duten txar guztia izerdiaren bidez bota daitekeela”. Arauetara ohitu ez eta joan egin diren haurrak izan dituztela dio. “Arauk denontzat berdinak dira, haur hasiberrientzat eta irakasleentzat. Bestela, nahaste-borrastea izango litzateke”.

Ez daki urte hauetan guztietan zenbat haur pasa diren judo eskolatik. Ez da zenbaki bat ematera ausartzen. “Urte batzuetan 200 ikasle ere izan ditugu. Orain 40 bat izango ditugu”. Gehienak Zumaia-koak dira, baina Oikiakoak, Arroakoak eta Getariako bat edo beste ere badutela dio. Zumaian 12 edo 13 urte dituzten arte egoten dira. “Gero beste ikasketa batzuek izaten dituzte eta utzi egiten dute”. Adin horretatik aurrera judoan jarraitu nahi duena Azpeitira bideratzen dute. “Han

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com
Tel. 943 865100
Talasoen ordutegia: Egutero irekita 9:30etik 20:30era
Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

LABARRA TABERNA ZUMAIA est.2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943 860 484



MENDI - ONDO S.L. Elektrizitatea

Urola plaza, 21 Tel. 943 860 074 - 943 861 569
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



BALEIKE.eus

Deskargatu doan app-a



CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea Tel. 943 861 691



NOIA S.L. TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Hego kalea, 83 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Etengabeko garabi zerbitzua

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com



Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861 412 - 686 364 149



construcciones y reformas, S.L.
647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com
Oliden arkitek-tura
678 875 652
943 143 093
lar@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Faxadak
Telatutak
Etxebizirik
(Sukak, lekuak, bainugaiak)
Industriar mantenimendua
Mota guztietako igelberritze lanak
Etxebizirik inspektio teknikoa (ITE)
Zerbitzu energetikoa
Faxadaren diseinua eta aholkularitza
Etxebizirik berritze diseinua
Mota guztietako proiektuak



OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 - Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskaltel.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25
Julio Beobide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskaltel.net / www.mueblesostolaza.com

Primavera pizzeria

943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA

garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Kodilloak)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

UKENDU

PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



“Utzi ez dut egin, eta ez dut utziko. Oraindik federazioko lizentzia ordaintzen jarraitzen dut eta ez, ez dut utziko”

helduentzako klaseak dituzte. Helduekin batera jartzen ditugu, adinaren arabera teknika desberdinak izaten direlako. Adibidez, 14 urtera arte umeek ezin dituzte itotzeak edo luxazioak erabili judoan. Erabat debekatuta dute”.

Bi hamarkada luzeren lana urte honen hasieran amaitu zuen. “Banekien urte hasieran aurretiko erretiroa hartuko nuela eta kurtsoa hasi zenean Azpeitikoei esan nien erretiroa hartuko nuela klaseetan ere. Ikasle gehienak iazkoak ziren eta ez nuen aldaketa bortitzik egotea nahi; ez nuen nahi egun batetik bestera irakaslea aldatzea. Juanxo Calero etortzen hasi zen Azpeitikoei eta bion artean hasi ginen klaseak ematen”. Urtarriletik aurrera gimnasia gutxiago joaten dela dio, astean behin edo. “Batzuetan Zumaia joaten naiz, besteetan Azpeitira. Utzi ez dut egin, eta ez dut utziko. Oraindik federazioko lizentzia ordaintzen jarraitzen dut eta ez, ez dut utziko”.

Ekainean, Alaiko festetan, merezitako omenaldia jaso zuen. Azken urteotan bezala, judo erakustaldia egin zen auzoko festetan eta Abundiok ezusteko pozgarria jaso zuen. “Ez nekien

ezer. Ohikoa da tatamian sartzen zarenean gradu handieneko irakasleak hastea saioa. Agurtu ginen, hasteko esan nion eta lagunak itxaroteko esan zidan. Bilobak etorri ziren plaka eta argazki album banarekin. Egia esan, hunkitu egin nintzen. Jende asko zegoen eta ilusio handia egin zidan”.

“Pentsatzeko eta gauzak egiteko moduak aldatu dizkit judoak”, azpimarratu digu Abundiok. “Umore txarrean zaudenean judo saio bat egin eta erabat erlaxatuta ateratzen zara. Barne bakea lortzen duzu, lasaitzen laguntzen dizu. Egun txar bat izan eta modu okerrean erantzun beharrean, arnasa sakon hartu eta lasaitu egiten zara. Barruan daramazun zerbait da”.

Orain erretiroa hartuta, ez du geldirik geratzeko asmorik. “Ezta pentsatu ere! Ez zaizkit karta jokoak gustatzen, ezta tabernak ere. Beno, ostegunetako pintxo potea izan ezik!”. Orain, sendagileek uzten badiote, Donejakue Bidea egiteko asmoa du bizikletan. “Orreagatik Santiagorako bidea egingo dut, behar dudana denboran. Ez dut inongo presarik”. ■

Martxelo Linazasoro, txanperogile zumaiarra

TESTUA: XABIER AZKUE IBARBIA



Martxelo, Dolores, Jose Luis, Ane Miren eta Inazio, Zarautzen, 50eko hamarkadan.

Azken urteotan indar handia hartu du bodyboardak Zumaian, eta ikusi besterik ez, esate baterako, Alex Uranga noraino iritsi den Itzurunen hasitako bidetik. Olatuak etzanda hartzea, ordea, ez da hain kontu berria, eta 35-40 urtetik gorakoek gogoan izango dute txikitan nola erabiltzen zituzten *txanperoak*, olatuak txanpan hartzeko egurrezko ohol berezi haiek. Elurretarako ere ez ziren txarrak! Surfeko taulen aurrakariak izan ziren nolabait, merkeagoak ziren eta ia edozeinen esku zeuden. Erribera kaleko Galdona dendan saltzen zituzten behintzat, Zumaian.

Ohol horietako batzuk hurre egiten zituzten, Zarautzen, eta Iñigo Urdinaga oriotarraren *Surflaria eta paradisua* blogaren bitartez jakin dugu zumaiarra zela txanperogile bat: Martxelo Linazasoro Egaña. Pixka bat ikertu eta seme-alabekin harremanetan jartzea ere lortu dugu. Pozik hartu dute telefonoa. “Oso zumaiarra zen aita, ondo amantea zen Zumaiakoa”

esan digu haren alaba Ane Mirenek. Zumaian jaioa da bera ere, eta 9 urte zituela joan ziren Zarautzera, gurasoekin eta anaia Inazioarekin, eta han jaio zen Jose Luis, gazteena. Ahal zuen guztietan etortzen zen Martxelo Zumaia; oso bereak zituen sanpedroak eta santelmoak, prozesioan jaitsi eta eza-gunekin hamaiketako egitea. Izan ere, San Telmo txikiaren aurrean bizi ziren Zumaian, *Bonbillokoa* edo *Zanbuionekoa* deitzen dioten etxean.

1902ko irailaren 14an jaio zen Martxelo. Aita upelgilea zuen: Jose Manuel Linazisoro Azkue, “oficial tonelero”, 1910eko erroldako datuen arabera; osaba, berriz, Asentxio, Pasaia joandako Jose Manuel Linazasoro *Txulofronton* eza-gunaren aita¹. Abizen aldaketari buruz, Ane Mirenek kontatu digu berak *Linazisoro* abizenari eutsi diola, izeko batek hala

1. AZKUE IBARBIA, Imanol: *Jose Manuelen ibilerak*. Baleike kultur elkarte, Zumaia, 2013.



*Jose Luis
eta Ane
Miren,
txanpero
txikiarekin,
2017ko
uztailean.*



eskatuta, baina etxeko gehienek *Linazasoro* idazten dutela. Martxelo, aitaren bidea hartuta, arotz lanetan hasi zen gaztetan Balenciaga ontziolan, eta aparte piraguak egiten hasi zen San Telmo kaleko aroztegian, soilak eta oso sendoak. Julio Beobideren museoan dago horietako bat, 3 m luze eta 0,86 m zabalekoa.

1940an familiarekin Zarautzera joan zen Martxelo, eta Juaristiren aroztegian ibili zen. Hala ere, zumaiarra zela esaten zuen, eta arraunean ere Zumaiaren alde Martxelo beti. Ordu libreak eta asteburuak aprobetxatuta, piraguak egiten ibili zen, etxekoekin. Saihetsak akaziarekin egiten zituzten, alboko listoiak pinuz eta lona batekin forratzen zituzten; urik

ez sartzeko linazi olioia ematen zieten gainean, eta gero kolore askorekin margotu. Martxeloren emaztea, Dolores Alkorta, getariarra zen, eta hark egiten omen zituen jostun eta pintore lan gehienak, artista zelako. Kaxeta edo etxola bat jarri zuen familiak Munoa inguruan, piraguak alokatzeko, arraunak gehituta. “Se alquilan piraguas, pirauchos y champas” jartzen zuen kartelean. 1970 aldera arte eduki zuten.

Hainbat motatako piraguak egin zituzten: lagun baten-tzakoak, birentzakoak, eta kanoa indiarren tankerako mutur berezia zutenak ere bai. Jose Luisek azaldu digunez, Zarautzen garai batean estropada edo lasterketa bereziak ere egiten omen ziren, binaka, eta berak ere parte hartu zuen be-



Martxelo eta Dolores, biloba Xabirekin, 1960ko hamarkadan, Zarautzen.



Xabi, Salbideko albergan.



Ane Miren, seme Xabirekin, 1960 inguruan.

“1955 eta 1975 bitartean egin zituen txanperoak, eta Martxelok molde edo prentsa batzuk prestatu zituen, behar zuten okerdura emateko”



Munoa parean egiten zituzten estropada edo lasterketak, 1950eko hamarkadan.

hin baino gehiagotan: hondarretatik abiatu saltaka piragua eskuetan, arraunean balizara joan-etorria egin eta hondartzan saltaka bukatu.

Urte askoan ibili zen piraguen alokairu horrekin, bestelako lanen osagarri, Linazosoro-Alkorta familia osoa. Denboraldia amaitutakoan, Salbideko albergan garbitu eta kentzen zieten lonetako kresala piragui. Ane Mirenek ondo gogoan du il-tzeak galvanizatzeratren ez etortzen zela Zumaia, guardia zibilen kuartelaren ingurura (Basusta jatetxea dago hor orain), Juan Mari Aizpuruaren tailerrera (gaur egungo postetxea-

ren parean). Inguruko denentzat topatzen omen zuen aitak eginkizuna, denak jartzen zituen martxan.

Ezinegon edo ekimen horren adibide, Jose Luisek kontatu digu aitak haur eta gazteei asko begiratzaren zela, eta Zarautzen uretarako beste zerbaite falta zela ohartu zela. Horregatik, haientzat inguruko hondartzetan begira ibili zen Martxelo, Donostian Jose Luisekin eta Biarritzen Ane Mirenekin, frantsesez bazekielako. Bi ideia ekarri zituen: pirautxoak (arrautzen formakoak, gomazkoak, kanpotik lona zutenak) eta txanperoak, egurrezko ohol kurbatuak.

Gutxi gorabehera 1955 eta 1975 bitartean egin zituen txanperoak, eta Martxelok molde edo prentsa batzuk prestatu zituen, behar zuten okerdura emateko. Duela bi hilabete lokala bota duten arte, han eduki dituzte prentsa eta tresna haiek. 3 taula hidrofugo lotzen zituen *kola kasko* izenekoarekin, eta sarjentekin estutu. 24 orduan gogortzen utzi, lixatu eta berniza ematen zieten bi aldiz. Gehienbat Hondarribia eta Irun aldean, Donostian eta Zarautzen saltzen ziren.

Biarritz aldekoen oso antzekoak ziren hemengo txanperoak, baina arotz bakoitzak bere ukitua ematen zion. Martxeloren lanen ezaugarria izan zen oholaren beheko alde biribiltzea, surflariaren gerrira hobeto egokitzeko eta errazago erabiltzeko. 3 neurrikoak egiten omen zituen, eta txikietako bat oraindik gordea du Jose Luisek etxean. Jubilatuta eta gero ere, aita askotan joaten omen zen lantokira oholak egitera, baita 80 urte baino gehiagorekin ere. 1987an hil zen, San Pedro egunaren bezperan. Horretan ere zumaia izan, Martxelo.

Bai bidea batzokia jatetxea

Gala Gauerako menu berezia
dugu enkarguz.



Eusebio Gurrutxaga plazan 943 86 02 75

Uz29 22:30 Itzurun hondartza
Musika Bandaren udako kontzertua: *Flamenco Etxea*

Uz31 20:00 Oxford aretoa
Flysch Quartet klarinete kontzertua

Ab1 20:30 Parrokia
San Pedro Abesbatza

Ab2 20:00 Aita Mari aretoa
Opera zuzenean Sydneytik: *La traviata*

Ab3 22:30 Oxford aretoa
Musika eta zinea: *Harold Lloyd*, Javi Perez de Azpeitia

Ab4 Donostiako Musika Hamabostaldia
18:30 Mari kalean
Kantu Kontari ikuskizuna haurrentzat

20:30 Parrokia
La remembrance

Ab6 20:00 Maria eta Jose
Mahler 4. Sinfonia, Sapere Aude Sinfonietta
Sopranoa: Miren Urbietta-Vega
Zuzendaria: Alain Ayerdi

Ab7 20:00 Oxford aretoa
Solalsaldia: *Musika eta besteak*, Iker Gonzalez

Ab8 20:00 Oxford aretoa
Soinuzko begiradak, Zukan hirukotea

Ab10 20:00 Odieta **Dantza**
Esku harriak: Oteizaren (h)aria, Mug Mus
Suddenly, Jaiotz Osa

Ab12 20:00 Oxford aretoa
Onena heltzeko dago, Nevermind jazz hirukotea

Ab13 20:00 Odieta **Dantza**
Fresh cool, Tio Teronen Semeak

ZUMAIAKO 2017 *Musika Jaialdia*



Uztailean

Zumaia txartela erabilia, opari hauek irabazteko aukera:

Gau bat gosariarekin Jesuskoan eta 60€-ko bale bat
BQD bidaia agentzian gastatzeko



Zumaia Udala





Jose Luis eta Ane
Miren, pirautxo batean
1960ko hamarkadan.



Martxeloren
aroztegiko prentsa eta
tresnak, Echegaray eta
Troitiñoren liburutik.

Gaia ikertzen ari direnek hala aitortuta, Martxelo Linazasorok Euskal Herriko surfaren historian kokatzen du Zumaia, *historiaurrea* izenda dezakegun horretan. Hari esker, bazter guztietako jendeak probatu zuen lehen aldiz olatuaren indarra. 1970etik aurrera, ordea, surfeko oholak zabalduz joan ziren hondartzetan, eta pixkanaka txanperoek lekua galdu zuten hemen ere; are eta gehiago 1980ko hamarkadan *kortxoak* agertu eta gazteak olatuetan era askotako maniobrak egiten hasi zirenean. Bazetozen atzetik Alex Uranga eta konpainia. ■

Iturriak:

- ECHEGARAY EIZAGUIRRE, Lázaro; TROITIÑO BERASATEGI, Mikel: *Olatuek ekarri dutena: Zarauzko surfaren istorio bat*, Zarauzko Udala, Kultura Saila, 2007.
- URDINAGA, Iñigo: <http://surflariaetaparadisua.eus/gure-lehen-surf-oholak/>
- 1910eko errolda. Zumaiaiko artxibategia, 136. kaxa.

Zuri-beltzeko argazkiak: familiak utzitakoak

UZTAILA-ABUZZTUA

DEIALDIAK

Uztailaren 29tik abuztuaren 13ra ZUMAIKO MUSIKA JAIALDIA

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Uztailak 13 - 25

Kosmopolita

Uztailak 28 - abuztuak 15

Arkitektura, txuri-beltzeko argazki lehiaketa

UZTAILA

15, larunbata

Itzurun hondartzan SURF EGUNA

22:30 Odietan hasita **perkusiota argi kalejira:** Deabru

Beltzak

22, larunbata

22:30 Aitzurin kontzertua:

Benito Lertxundi

22-23 asteburua

Zumaiko Dendarien Outlet azoka

23, igandea

20:00 Parrokian organo eta

tronpetak kontzertua: Santiago

Banda eta Enrique Abelló, II. Flysch

Organo Jaialdia

30, igandea

18:00 Torreberriin tailerrak

haurrentzat: Txiki Chef

ABUZZTUA

5, larunbata

Gala Gaua

11, ostirala

Euskal Jai Eguna

15, asteartea

Kaleko pintura lehiaketa

19, larunbata

Kuadrilla Eguna

MUSIKALDIA 2017-egitaraua

Uztailak 29 22:30 Itzurun

hondartza. Musika Bandaren udako

kontzertua: *Flamenco Etxea*

Uztailak 31 20:00 Oxford aretoa

Flysch Quartet klarinete kontzertua

Abuztuak 1, asteartea 20:30

Parrokia

San Pedro Abesbatza

Abuztuak 2, asteazkena 20:00

Aita Mari aretoa. Opera zuzenean

Sydneytik: *La traviata*

Abuztuak 3, osteguna 22:30

Oxford aretoa. Musika eta zinea:

Harold Lloyd, Javi Perez de Azpeitia

Abuztuak 4, ostirala

Donostiako Musika Hamabostaldia

18:30 Mari kalean

Kantu Kontari ikuskizuna

haurrentzat

20:30 Parrokia

La remembrancha



Abuztuak 6, igandea 20:00

Maria eta Jose. *Mahler* 4. Sinfonia,

Sapere Aude Sinfonietta

Sopranoa: Miren Urbieta-Vega

Zuzendaria: Alain Ayerdi

Abuztuak 7, astelehena 20:00

Oxford aretoa. Solasaldia: *Musika*

eta besteak, Iker Gonzalez

Abuztuak 8, asteartea 20:00

Oxford aretoa. *Soinuzko begiradak*,

Zukan hirukotea

Abuztuak 10, osteguna

20:00 Odieta Dantza. Esku

harriak: Oteizaren (h)aria, Mug Mus;

Suddenly, Jaiotz Osa

Abuztuak 12, larunbata 20:00

Oxford aretoa. *Onena heltzeko*

dago, Nevermind jazz hirukotea

Abuztuak 13, igandea 20:00

Odieta Dantza

Fresh cool, Tio Teronen Semeak

Zalla *musika*

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAILA

ZUMAILA AUTOESKOLA
E-mail: zumailaautoeskola@hotmail.com

BASOIA 12
20750 ZUMAILA
Tel: 943861018 / Fax: 943016175

Zumaia Hotela
*Jatetxea
Kalejotegia*

Alai auzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAILA MOTOR S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)
Tel: 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumailamotor@telefonica.net

Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057

www.eduoptika.com

EDU
ZUMAILA
OPTIKA

RPS 18/16

*Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak
Lore-zentruak, Koroak
Landare naturalak eta artifizialak
Zermika-lanak eta zumezko saskiak*

Etxez etxeko zerbitzua!
Santiago auzoa, 18
Tel. 943 862 611

Itzurun Taberna

KONTZERTUAK

20:00etan

Uztailaren 13

AGE

disco berriarren aurkezpena

Uztailaren 29

GREG IZOR blues

Abuztuaren 25

SERIOUS BUSINESS





Udako argazki lehiaketa 2017



Seguru udan hamaika argazki aterako dituzula, oporretan, festetan, lagun artean... **Anima zaitetz** eta parte hartu **BALEIKE**k antolatu duen lehiaketan. **Sari bikainak dauzkazu zain!**

- Parte-hartzaile **bakoitzak bost argazki** aurkeztu ahal izango ditu (jpg, 5mb gehienez).
- Argazkiak bidaltzeko epea: **irailaren 17ra arte**.
- Parte hartzeko: **aldizkaria@baleike.eus** edo **baleike.eus** webguneko formularioaren bitartez.

SARIAK:

1. Epai-mahaiaren saria: bi lagunentzako **asteburu pasa Kantabrian** bqđ bidaiak eskainita.
2. Interneteko saria: **bi lagunentzako jatordua Bai Bidea jatetxean** eta Donostiako **Aquariumerako bi sarrera** bqđ bidaiak eskainita.
3. Bozketan parte hartzen dutenen artean, **Bai Bidea jatetxeak emandako bi lagunentzako bazkari/afaria** zozkatuko dugu.

Baleike.eus-en aurkituko dituzue oinarri guztiak.

Antolatzailea

BALEIKE.eus

Babesleak



bqđ bidaiak
viajes - travel